

# Euskal Esperientzia Zientzia Zabalkuntzan (EEZZ18)



**14.Eka - 15.Eka**

**Kod. Z09-18**

**Edizioa**  
2018

**Jaduerara mota**  
Kongresua

**Data**  
14.Eka - 15.Eka

**Kokalekua**  
Carlos Santamaría Zentroa

**Hizkuntzak**  
Euskara

**Balio akademikoa**  
20 ordu

**Web**  
<http://eezz18.dipc.org/>

## **ZUZENDARITZA**

**Jon Matxain Beraza**, UPV/EHU

**Amaia Arregi Buldain**, DIPC

**Antolakuntza Batzordea**

**UDA IKASTAROAK**  
CURSOS  
DE VERANO  
SUMMER COURSES  
UPV/EHU



Fundación  
**BBVA**



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Diputación Foral de Gipuzkoa



**DONOSTIA**  
**SAN SEBASTIÁN**

## Azalpena

Kultura zientifikoa gizartean bultzatzea beharrezkoa da gizarte askeago bat eraiki eta etorkizuneko erronka eta erabakiei arduraz erantzuteko gai izango den gizadia eratzeko. Horretarako, zientzia zabalkundea derrigorrezkoa da. Zientziaren dibulgazioan gero eta ekimen eta proiektu gehiago aurkezten dira urtero, Espainia mailan gorakada nabarmena bizitzen ari delarik Naukas bezalako masa fenomenoaren eskutik, ehunka eta batzuetan milaka pertsona biltzen diren ekitaldietan.

Euskal Herrian ere, zientziaren komunikazioan eta dibulgazioan euskaraz diharduen komunitatea zabala da eta antolatzen dira ekitaldi handiak ere bai. Tamalez, gure artean oraindik koordinazioa eta elkarlana ez da behar adinekoa. Bilera zientifiko honen bidez, orain arte izan ez dugun testuingurua eskaini nahi diogu komunitateari esperientziak eta proiektuak partekatu eta zientzia zabalkundearen erronkak aztertzeke. Hartu eman hori gurea bezalako komunitate batentzat beharrezkoa dela uste dugu.

### Batzorde antolatzailea:

Jon M. Matxain, UPV/EHU-DIPC, Donostia-San Sebastian (chair)

Amaia Arregi, DIPC, Donostia-San Sebastian (chair)

Idoia Mugika, CFM (CSIC-UPV/EHU), Donostia-San Sebastian (chair)

Uxune Martinez, Euskampus-UPV/EHU Kultura Zientifikoko Katedra, Bilbo (chair)

## Helburuak

Euskal Herrian zientziaren zabalkundean egiten diren ekimenen mapa orokorra osatzea. Mapa hau errealia zein birtuala izango da, interneten egiten diren ekimenak ere barne hartuz.

Zientzia zabalkuntzan parte hartzen duten eragileen foro bat gauzatzea. Horretarako, zientzia-komunikazioaren profesionalak, irakasleak, ikerlariak, kazetariak, adituak eta talde zein pertsona afizionatuak biltzea espero dugu.

Euskaraz egiten den zientzia zabalkuntzan parte hartzen duten eragileen saretzea eta elkarlana bultzatzea. Horrela, zientzia zabalkundean diharduten pertsona eta erakunde euskaldunen komunitatea sendotu nahi da.

## Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak

Asociación de Investigación MPC



HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

## Zuzendariak



**Jon Matxain Beraza**

UPV/EHU

---



**Amaia Arregi Buldain**

DIPC

---

## Matrikula prezioak

<b>MATRIKULA PREZIOAK</b>	<b>2018-06-14 ARTE</b>
Hizlari gonbidatuak	0 EUR
Parte-hartzailea	50,00 EUR

## **Kokalekua**

**Carlos Santamaría Zentroa**

Elhuyar plaza 2, 20018 - Donostia

Gipuzkoa